

[b]
BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

528. zkia.

XIII. urtea

2005eko maiatzaren 6a

Jangela Solidaria

Janaria **Elgoibartik Etiopiarara**



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Isolamenduak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Iturgintza, gasa, berogailua, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi

Olaso Poligonoa,
15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98
☎ 629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com



UNAI VILLENA

Alemaniatik idazten dizut oraingoan, Alaitz. Erasmus beka baten bitartez (Orgasmus ere deitzen diote eta mitoa hautsiko dudak beldurrez nabil) etorri nintzen hona martxoan hasieran sei hilabeterako. Hilabete pasatxo aklimatatzen pasa ostean, joan den astelehenean hasi nituen klaseak. Orain arte bidaiatzen aritu naiz, festarik festa eta hemengo kulturen murgiltzen saiatu naiz. Puntuale izaten hasi naiz, garagardo bat edozein ordutan eta tokitan hartzen dut gustura (hortara ohitzea ez zait asko kostatzen) eta erosketak egitera bizikletan joaten naiz. Alemanizatzen ari ote naiz? Ez dut uste; Alemanian egonda ezagutu dudak jende gehiena kanpotarra da. Hau idazten ari naizen bitartean pisukide txinatarak te bat eskaini dit, pisukide katalana gelatik pasa da zertan nabilen ikustera, eta greziako lagun batek telefonoz deitu dit gaur gaueko festaren berri emateko... Hemen errutinarik ez da existitzen: edozein aitzakia da ona norbaiten etxean elkartu, afari bat inprobisatu eta goizaldera arte hizketan gelditzeko. Horretan joaten zait denborarik gehiena; ezer ez egiten. Momentua bizitzen ari naiz aspaldi ez bezala. Duela gutxi txuri beltzeko telebista bat oparitu zidaten, baina ez dut apenas piztu, irratian musika besterik ez dut entzuten, erabat deskonektatuta nago mundutik, eta egia esan, oso gustura. Hala ere, Alaitz, egingo al zenidake martxotik hona gertatu denaren laburpentxo bat?

ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

«Momentua bizitzen ari naiz aspaldiko partez»

UNAI

«Titular guztiak giltzapean uzten ditut lanetik ateratzeko»

ALAITZ

Edarra lana jari diazuna Unai. Kazetari lanetan aritzen naizela esateaz damutu naiz oraintxe. Lanak halaxe eskatzen dialako aktualitateari begira bizi naiz. Hori bai, lanetik ateratzen naizenean, "titular" guztiak giltzapean uzten ditut. Batek baino gehiagok uste izango du, profesionaltasun falta nabaria dela, baina nire osasun mentala mantentze aldera egiten dut. Miseriak, heriotzak, eta batez ere, politikarien eguneroko zentzugabekeriek nere buruan "mega" gehiegi okupatzen dute eta beste era bateko istorioei lekua egin nahi nieke. Horrexegatik, jai egunean erantzuten ari naitaizulako, ezingo dizut hilabeteko aktualitateko laburpenik egin. Nire egunerokotasunak zureak baino hizkuntza aberastasun gutxiago badu ere, berde kolorekoa da eta lasaitasun usia du. Etxe osteko zelaiaren kolore berdea, txori kantuen melodia eta zeru urdinen zabalera. Atzo iluntzean, bizilagunen etxeko atarian eserita orduak eman genituen kontu-kontari. Herri txiki batean bizitzaren abantailak, txo! Pertsona homosexualak ba al dute ezkontzerik Alemanian? Denak irabazle diren hauteskunderik ba al dago Alemanian? Ratzinger izeneko alemaniar bat Vatikanoko "tronora" igo dela jakingo duzu ba, ezta? Bihar goizerate ez dut lanera joan behar eta giltzari beste buelta pare bat eman beharko dizkiot lotara joan aurretik.



HILTZEA EZ DA EZER, IZUGARRIAGOA DA EZ BIZITZEA



Victor Hugo

Alkatearen salaketa

Euskal gazteriaren aurkako errepresioa eguneroko gauza den egunotan; edozein euskal gaztek, ezergatik Madrilgo Auzitegi Nazionalan eta espetxean bukatzen duen egunotan; edozein ekintzagatik baimena eskatu eta poliziaren zaintzapean burutu behar den egunotan; horra hor non Elgoibarko udaletxe antidemokratikoa kudeatzen duen alkateak ez duen beste lanik bi gazte elgoibartarrerik salaketak ipintzen ibiltzea baino, kartelek eta pegatinekin min egiten diotelako.

Zergatik uste duzu, larunbatetako "botelloiaren arazoa" polizia gehiago ekarri baretu ez baduzu, eta ostegunetako merkatuaren trasladoaren aurkako mobilizazioetara polizia deituz jendea beldurtu eta etxean gelditzea lortu ez baduzu, bi salaketarekin zerbaite konpontzea? Oraindik ez al zara konturatu errepresioa ez dela bidea? Zure "politika" bai dela salagarria, Marivi.

Ez da horren zaila jendearekin hitz egitea eta akordioak lortzea. Gazteekin, hitza betetzea besterik ez duzu, eta lehen bait lehen gatzetxea eman.

Bestela, eta adierazpen askatasuna gustuko ez baduzu, jarri abokatuak (eta hobe elgoibartarren diruarekin baino

zure poltsikotik ordaintzen badituzu) lanean, 2 salaketa baino dexente gehiago beharko dituzu-eta.

I.G.G. 15.400.032-Z
ELGOIBARKO ASKATASUNA

Lapurreta

Peruko haurrentzat dirua batzen duen Miski Elkartearen izenean itxulapikoak daude jarrita Eroskiko kutxetan. Itxulapiko horietan biltzen den diruari esker, urtero errifak ateratzen ditugu eta errifak salduta lortzen den dirua Perura bidatzen dugu. Kontua da, azken hilabete eta erdian bi bider lapurtu dituztela itxulapikoak eta, ondorioz, errifak ateratzeko nahikoa dirua ez dugu lortu aurten.

Guk, halere, errifak berdin-berdin kaleratuko ditugu baina, lerro hauen bidez lapurrak salatu nahi ditut, ez baitago eskubiderik jendeak borondatez eta ekintza on baterako ematen duen dirua osteko.

GEMMA AGIRREGOMEZKORTA

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxe: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorobategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe KE, Uruzuno, Unai Villena, Aloitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIVATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurizakoa Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK



- Herritar batek esan digunez, **Plaza Handian** umeek ez lukete baloiarekin edo bizikletekin jolastu behar: "Badakit herrian ez dagoela umeentzako toki askorik, baina Plaza Handian jende asko ibiltzen da pasiatzen, terrazetan jarrita edo besterik gabe bertatik pasatu behar du Santa Ana kalera joateko, eta askotan ezin izaten da bertatik lasai pasatu. Umeak edozein modutan ibiltzen dira eta kontu handiagok ibili beharko lirateke, edo gurasoek atentzio gehiago jarri beharko lukete umeengan".

- Herritar batek **Urasanditik Santa Klararaino** doan espaloia egokitzeke eskatzen du: "Urasandi eta Santa Klara lotzen dituen errepide ondoko oinezkoen bidea (espaloia) oso ondo datorkigu auzo hauen artean ibili behar dugunoi. Horregatik, neguan jasan behar izan dugun egoera ikusita (errepidera ateratzera behartzen gintuzten hosto, zakar, putzu eta ur jauziak, gehi goitik behera jaustear azaltzen diren lurrak), mesedez, bide hori erabiltzeko moduan baldin badago, erabilgarri jartzea eskatuko nizueke udaltzaingo edo udaleko agintarioi eta, arriskutsua baldin bada, behar den bezala adierazi edo ixtea".



TXALOAK

- Herritar batek **Udala txalotu nahi du umeentzako parkeak egin dituelako**: "Umeentzako parke oso politak egin ditu Udalak herrian, eta txalotzekoa da. Elgoibarren ez dago apenas umeekin ibiltzeko tokirik, eta parkeak beharrezkoak dira. Orain auzo guztietan jarri dituzte, eta umeak oso ondo ibiltzen dira. Kostatu zaio Udalari obra hauek egitea, baina merezi izan du".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- ☺ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ☺ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ☺ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Batoz informazio eske!



URRUZUNOREN *Luma*

Dolorea

Dolores, etxeko andre ofizioan doktoratutako emakume, langile fina eta bikaina zen. Erosketa, garbiketa, heziketa, ekonomia, zaintza eta kudeaketa departamentuetako buru egin zuten ezkondu bezain pronto. Sendiaren baliabide guztien optimizazioa zen bere helburua, horregatik zen ohikoa gaueko ordu txikietan Dolores lanean ikustea. Telebista kate batetik bereganatu zuen "12 meses, 12 causas" leloa; ondorioz bere etxean urteko hilabete bakoitzari helburu, erronka zehatz bat zegokion. Oso nabarmena zen emakume honen balioa eta berehala jaso zituen lanaren fruituak. Argitaletxe baten belarriek jaso zuten ustekabez "Dolores" lan metodoen berri. Berarekin harremanetan ipini, liburu bat argitaratu eta 8 hilabeteren epean, urteko liburu salduena izatera iritsi zen!! Hori gutxi balitz, telebista kate batek, bere neurria eginiko eguneroko programa eskaini zion, "prime time" orduan, Argiñanoren ondoren!! Hura poza Doloresena.

Eguzkiñe Aranberri

komikia



"Torero Bombero"-ren senideek deitu dute gorpua hilketan ez dagoela esanaz.

Bai, kontua da Jose Luis Morenok deitu zidala Monchito puskatu zitzaiola eta ea Toreroa biharko ikuskizunerako utzi ahal nion galdetuz.



Kokoe 016



BATESAN?

**KRISTINA
ZUATZUBIZKAR**
EUSKARA TEKNIKARIA

Aurten ere, 7000 herritarren artean kale neurketa egin du Udaleko Euskara Sailak. Kalean entzuten den hizkuntza jasotzen du modo objektiboan eta azken emaitzen inguruan galdeketa egin diogu Kristina Zuatzubizkarri

• Zer-nolako emaitzak izan dira aurtengoak?

Antzekoak, iaz %41,4koa eta aurten %40,9koa. Lehendabiziko kale-neurketan, 1990ekoan, erabilera %20koa izan zen eta azken bost urteotako datuen arabera, erabilera %40aren ingurukoa izan da.

• Zein girotan eta adinetan hitz egiten da gehien euskaraz? Eta non dago hutsunerik handiena?

Gehien jolasleketan, erosketa giroan eta ikastetxeik irteetan entzuten da, %45etik gora. Eta adinari dagokionez, haurrak dira gehien hitz egiten dutenak, %58,5ak. Hutsunerik nabarmenena txikiteoan, helduen artean eta familia giroan.

• B eta D hezkuntza ereduaren euskara mailaren inguruan sortu den kezka dela-eta, Elgoibarren ere nabaritu al da?

Elgoibarren ikastetxeek egindako ahaleginaren eragina nabaria izan da euskararen ezagutzan, 1986an hurren %58,9 zen elebiduna, eta 2001ean, berriaz, %91,3. Hurren erabilera pixka bat jaitsi bada ere, azken bost urteotako batez bestekoa %63,9koa izan da.

[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO

1923an jaioa

«Nobixua eta erromerixak»

15 urtekin hasi nitzan mutillakin. Gaztegiak giñan nobixuak izateko, baiña lagun bezela urtetzen hasi giñan. Kamiñeroko alderutz pasiaran, Altzolaraiño pasiaran, erretratu batzuk atara... argazkirik ez zaghan orduan, erretratuak ziran. San Migelera ere juten giñan San Migel egunian, txuletia jatera piperrekin.

Ospitalera (oiñ San Lazaro residentzia dagan tokixan) allegau, eta zintzo-zintzo, zu hemen eta ni han. Pasatzen giñanian Melitongorutz orduan illunago zaghan, eta orduan eskutik heldu, formal-formal baiña, besotikan. Berritz buelta egiñ ospitalera, eta besua kendu. Zintzuegiak giñan. Orduan gogor hartzen giñuezen abadiak. Etxekuak baiño bildur gehixago ematen ziguen.

Dantza egittia gustatzen jakun bixori, beti lehenenguak plazara ataratzen, bai sueltuan eta bai agarrauan. Azkoittixan eta Azpeittixan ezin zan agarrauan dantza egin,

bestela elizatik kanpora, "fuera de las hijas de Maria", kongrezaziotik kanpora bota. Hemen ez zaghan holakorik.

Erromerixak, berriz, gehixenak San Lorentzon egitten ziran.

Gu dantza-premixuetan ibilli izan gara, eta atara ere bai lehenengo premixuak. Bergaran (Paskuetan)

atara genduzen 3 urtian lehenenguak. Geure kabuz ikasi gendun dantzan. Ariñ-ariña eta fandangua dantzatzen gendun. Gelatxo zaharrakin ibiltzen giñan. Behin egin gendun

harekin buelta Ondarrua-Markiñatik zihar, bidez bidez, bidez guztixan dantzan jua giñan, jo ta fuego. Zorauta geunden, oin futbolakin bezela, orduan soñuakin.

Dantzan egitteko gona gorrixa janzten gendun, mantala eta abarketak. Eta mutillak, blusia, gerriku, prakak eta alkondara zurixa. Politta izaten zan. Asko gogoratzen naiz. Oñ ere jarduten dot nik bakarrik etxian: Arrate irratixa ixututa eukitzen dot.

«Dantzan egitteko gona gorrixa, mantala eta abarketak janzten gendun»

[GURE BERBAK]

Esamoldien azalpenak

Aurreko bi astietan ariketa moduan azaldu ziran esamolde batzuk esplikatu nahi dittut gaurkuan, baten batek igual ez dittu ezagutuko eta.

- *Deittu egidak txakurra, baiña emaidak ogixa: hik esaidak nahi dokena, nik neuria egingo juat eta.*

- *Egon hadi lo, eta jango dok mehe: espabilatu hadi, bestela ezer gabe geratuko haiz eta.*

- *Gizurrak hanka motzak daukaz: gizurrarekin eziñ uruti jua.*

- *On billa, on billa, (azkenian) bonbillat: hainbeste ibilli emakume/gizonezko hobiaren billa, eta azkenian batere gabe geratu.*

- *Sasoian kerixak!: gauza bakoitzak dauka egitteko sasoi aproposa: umetan, gaztaruan, zahartzaruan...*

- *Astarrak umia egitterako amaittuko juek obra hori: sekula etxuek amaittuko.*

- *Aterik adiña maratilla dauka horrek: horrek beti dauka irtenbide bat.*

- *Bildur edarra obispuak abadiari: Andria kejauta egongo dok, eta banajiek etxera! - Bai, zera, bildur edarra obispuak abadiari!*

- *Lehengo lepotik (dauka) burua: lehen bezela segitzen du horrek.*

Jesus Mari Makazaga



karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)

PSIKOLOGIA

CHARREMAN ARAZOAK:
bikotearekin, familiararen edo kideekin

LUMEN ETA NERABEEN ARAZOAK

ANTSJETATEA

DEPRESIOA

ESTRESA

ELIKADURA ARAZOAK

AUTOESTIMA

MIÑAN MAJIA: 676 61 78 55 AURKIAN IZATEAN: USTIALE BALEA-1.

ALIBEA BARRIOA: 615 70 37 25

JANGELA-SOLIDARIA

ETIOPIARA JANARIA BIDALTZEKO KANPAINA

lñigo Iparragirre elgoibartarra eta Inge Isasa donostiarra Etiopian izan ziren 2003. urteko abuztuan. Hilabete egin zuten bertan, eta hango bizimodua ikusi ostean, bertako biztanleei laguntzeko zerbait egin behar zutela erabaki zuten. Honela, Jangela-solidaria izeneko proiektua jarri dute martxan. Helburua, Etiopiako 500 umezurtzi bost urtetarako janaria ematea da. Euskal Herri osoan ari dira kanpaina egiten, eta oraingoan elgoibarrera datoz solidaritatearen bila. Interesatuek 943 40 47 40 telefonoan edo www.jangelasolidaria.com webgunean lortu dezakete informazio gehiago.

JANGELA-SOLIDARIA

lñigo Iparragirre eta Inge Isasa Etiopiatiko egoeraz kezkatuta itzuli ziren Euskal Herrira, eta bertako bizilagunei laguntzeko zerbait egin behar zutela argi zeukaten. Hasiera batean euriteetako ura gordetzeko zerbait egin behar zutela pentsatu zuten, baina ez zen lan erraza. Orduan, Anjel Olanar (Wukron bizi den Aita Zurién Kongregazioko misiolaria) misiolariari galdetu zioten zein zen bere beharrik premiazkoena, eta honek umezurtzei jaten ematea zela erantzun zien. Anjel Olanar Wukron bizi da. Bere lana 1.200 umezurtzen hezkuntza bermatzea da. Besteak beste, soldadura, egur-lanketa, nekazaritza, brodatzen, josten, marrazten... erakusten die.

Misiolariaren aholkuei jarraituz, Jangela-Solidaria izeneko kanpaina jarri zuten martxan.

Helburua: Bost urtetan Wukroko 500 umezurtzen elikadura gastuak bermatzeko diru laguntzak lortzea da, eta gerora partikularren dirulaguntzen bidez sostengarria izatea.

WUKROKO UMEEN EGOERA


Wukrok 33.000 biztanle ditu, eta horietatik 1.500 inguru umezurtzak dira. Familia gehienetan anai zaharrenak hartzen du txikien ardura: "Harrigarria da, 14 urteko ume bat, bere anai txikien arduraduna da". Etxebizitzan hornidura oso urria da, izan ere bi etxetik batek ez du oherik eta hamarretik seik manta soil bat daukate. Bestalde, ur kanalizatua eta komuna oso etxe gutxitan daukate. Umeen %90a gaizki elikatuta dago eta gosez hiltzen da: "Sinestezina da, hemen haur bat gosez hilko balitz sekulako eskandalua sortuko litzateke, baina han

ohituta daude umeak gosez hiltzen ikustera". Inge eta lñigok esan digutenez, gaizki ikusita dago garapen bidean dagoen herrialde bati jatekoa ematea: "Gainontzeko erakundeek esaten dutenez janaria ematea alferrikako lana da, baina gure ustez, umezurtz horiek gosez hiltzen badira, inork ez du lurralde hori garatuko, beraiek dira hango etorkizuna".

ZERGATIK ETIOPIA?

Herrialde txiro ugari dago munduan, baina Inge eta lñigok Etiopia aukeratu zuten. Zergatik? Telebistan Etiopiar buruzko erreportaje hunkigarri bat ikusi zuten, eta bertako umei laguntzera joateko erabakia hartu zuten. Anjel Olanar Hernaniko misiolariarekin egin zuten kontaktua, eta Etiopiako Iparraldean dagoen Wukro herrialderantz abiatu ziren: "Addis Abeba hiriburura iritsi, eta





iparralderako autobusa hartu behar genuela besterik ez genekien. Bi egunetan iritsi ginen Wukrora". Jendeak harrিতта begiratzen ziela kontatu digute, "toki askotan sekula ez dute gizaki zuririk ikusi, eta beraientzat harrigarria da. Hala ere, ez dira beldurtzen, denak daude laguntzeko prest, ukitu nahi zaituzte, eskua eman eta kalean umez inguratuta ibiltzen ginen beti". Esperientzia bikaina izan omen da, baina hasieran gogorra: "Aireportutik atera ginenean usain oso txarra nabaritu genuen, aireak usain oso desberdina zeukan. Gainera jende mordoa bizi da kalean botata, eta gu ez gaude horrelako gauzak ikustera ohituta. Hala ere, esperientzia ikaragarria izan da".

WUKROKO BIZIMODUA

Nekazaritza da Wukroko biztanleen bizimodua: "Ez daukate ezer. Gehienak

nekazaritzatik bizi dira, baina ez daukate urik eta oso zaila da lurra lantzea. Orain hasi dira etxeak egiten eta errepideak asfaltatzen, beraz, lan apur bat badago". Honetaz gain, emakume asko prostituziotik bizi direla kontatu digute: "Prostituzioa ez dago gaizki ikusita. Emakumeek beren seme-alabei jaten eman behar diete, eta bere gorputza besterik ez dute. Umeei jaten emateko aukera bakarra da. Hori bai, ahal duten momentuan beste lanen bat egiten hasten dira".

Etiopiako arazorik nagusienetarikoa ur falta da: "Wukron hiru hilabetetan egiten du euria, uztaila, abuztua eta irailean. Euri asko egiten du, baina ez daukate ur hori gordetzeko mediorik. Honetaz gain, gerrateak ondorio latzak utzi ditu, eta Etiopiak daukan kanpo zorra ikaragarria da".

SOLIDARITATEA

Momentuz kanpaina ondo doala esan digute, baina oraindik lan handia daukate egiteko.

Euskal Herri mailan jarri dute martxan Jangela-Solidaria proiektua, eta jende askoren laguntza jaso omen dute: "Guk ez daukagu dirurik, ez dugu diru hau guretzako eskatzen, eta honelako kanpaina bat martxan jartzeak gastuak dauzka. Jende askok borondatez lagundu digu, eta hori eskertzekoa da".

Inge eta Inigok badakite kanpaina asko daudela martxan, eta jendea ez dela fidatzen: "Guk ez daukagu inongo interesik, dirua ematen duenak jakin dezala benetan Etiopiako umeentzako dela".

Aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkiete kanpainen parte hartuko duten elgoibartarrei.



BEHARREZKO DIRU KANTITATEA:

Ume batek eguneko	0,57	94,8 pezeta
500 umek eguneko	285	47.420 pezeta
500 umek urteko	104.025	17.308.303 pezeta
500 umek 5 urtetan	520.125	86.541.518 pezeta

(1 euro: 10,229 birt)

[PROTAGONISTA]



Agustina Iriondo

100 urte bete zituen joan zen asteen Agustina Iriondok. Zorionak!

Mendaroko Mantarre baserrian jaio zen Agustina 1905. urteko apirilaren 27an. Bertan pasatu zuen bere haurtzaroa, eta 20 urte zituela Elgoibarrera etorri zen bizitzera. Bere senarra ere mendararra zen, Jose Arriola Itsasueta baserrikoa. Hiru alaba ditu Agustinak, eta ilobak eta birbilobak ere mordoa.

100. urteurrena ospatzeko familia guztia elkartzea gustatuko litzaiokeela esan digu, baina osasun arazoak zirela-eta, ezin izan zuten. "Datorren urtean ospatuko dugu ganoraz", esan zioten ilobek.

[NOTIZIA]

Udalak 212.500 euroko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Izarrari aurten

Elgoibarko Udalak 212.500 euroko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteari 2005ean gauzatu nahi dituen proiektu eta egitasmoak finantzatzeko. Proiektu batzuk osotasunean finantzatzen ditu eta beste batzuk aurrekontuaren zati batean. Hauek dira dirulaguntza honen atalik garrantzitsuenak: Haur eta Gaztekoen plan integralak 122.000 euro jasoko ditu; BARREN astekariak 50.000 euro; Gurean Bai merkataritza hitzarmenak 29.600 euro eta Kultur Jarduerak, beriz, 9.000 euro.

Aurrekontuaren erdia

Elgoibarko Izarrak hainbat klausula eta baldintza onartu ditu dirulaguntza jaso ahal izateko eta hitzartutako programa aurtengo



partearen betetzeko konpromisoa hartu du. Udalak emandako laguntza Elkarteak 2005erako duen aurrekontu osoaren erdia baino zertxobait gutxiago da. Era berean, Elkarteak eskerak eman nahi dizkio Udalari eskaintzen duen laguntzagatik, izan ere, "administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana da euskarak gure herrian aurrera egiteko bidea".

[ZENBAKIA]

3.637.165

Eusko Jaurilaritzaren Izartu II programak 3.637.165 euro inbertituko ditu Elgoibar berritzeko obretan. Programa hau 2004-08 urte bitartean gauzatu da, eta

erdibana finantzatu dute Elgoibarko Udalak eta Jaurilaritzak. Besteak beste, Sigman errotonda bat, eta herria apaintzeko obrak ere egingo dira.

asteko [ARGAZKIA]



Begira nolako fatxada dotorea daukan Estarta enpresak! Ipintzako Jabier Zorruga eta Debako Rober Garcia margolaria izan dira egileak. Estartakoek eskatuta egin zuten lan hau. Hasieran beldurra ere bazuten, honelako koadro handirik sekula ez baitute marraztu. Denbora luzez jardun zuten lanean, baina oso pozik gelditu dira emaitzarekin. Duela gutxi Ikastolan jarri duten airea neurtzeko aparailuaren etxola ere marraztu dute. Momentuz ez daukate beste proiekturik eskuartean, baina, ziur aterako zaiela.

54 milioi euroko eskaerarekin itxi zuen Danobat enpresak 2004 urtea



Apirilaren 15ean egin zuen Danobat enpresak urteko Batzar Orokorra Herriko Antzokian. 203 bazkide izan ziren bertan eta beste 136k bere ordezkapena utzi zuen. Guztira, %95eko partaidetza izan zuen Batzar Orokorrak. Danobateko kideek Batzar Orokorrean aipatu zuten, Europa mailako Makina-Erraminta sektore guztian gertatu den bezala, Danobatentzat ere ez da urte erraza izan iazkoa. Zailtasunen artean, atzerriko txanponen euroarekiko izan duten jaitsiera aipatu zuten: "Zailtasuna batik bat euro-dolar-yenaren parekotasunak eragin du, dolarraren

menpeko guneetara esportatzeko. Bestalde, Europako inbertsio joera eskasak ere izan du eragina". Guztira 54 milioi euroko eskaerarekin itxi zuen 2004. urtea Danobatek eta hortik % 80 esportaziorako izan da. Hala ere, Danobaten kokapen finantzarioa indartu egin dela aipatu zuten, eta iaz I+Gn produktu berriak indar handiz merkaturatzen egindako ahalegina ere azpimarratu zuten, horren ondorio izan baitira lortutako eskaeren erdia baino gehiago. Produktuaren garapenean apustu sendoa egin beharra ere nabarmendu zuten.

Amaia Mugerza Bai ala Ez lehiaketako irabazlea



Hilabete honetan Debako Kresala Talasoterapia hotelean bi laguntzako zirkuitoa zozketatu du BARREN astekariak "Bai ala Ez" lehiaketan, eta Amaia Mugerza izan da irabazlea. Parte hartzea oso erraza da: astero-astero galdera bat luzatuko du BARRENek bai ala ez erantzuteko, eta erantzunak SMS bidez 7744 zenbakira bidali behar dira. Parte hartzaile guztien artean, zozketa egingo da hilabetearen behin. Datorren hilean, Gabi jabetxean bi laguntzako afaria zozketatuko da.

[MOTZ-MOTZIAN]

Abiadura Handiko Trena

AHT GELDITU! elkarlanak deituta Batzar Orokorra egingo da bihar, maiatzak 7, Angiozarren (Bergara). AHTren aurkako oposizio fase berri bati ekiteko. Goizeko 10:30ean hasiko da, eta arratsaldeko 18:00ak aldera bukatuko da. Interesatuak 657 70 56 77 telefonoan lortu dezakete informazio gehiago.

Merkatu Plazako zozketa

Maria Luisa Estarta eta Dolores Mosquerak bi laguntzako afari bana irabazi dute Merkatu Plazako zozketan. Datorren hilean 60 euroko lau erosketara txeki zozketatuko dira.



Lourdeseko Ospitalitatearen oharra

Lourdeseko Ospitalitateak maiatzaren 20tik 23ra bitartean egingo du gaixoekin erromesaldia lourdesera. Guztira 300 gaixo eta ezinduk hartzen duteeta 500 laguntzaile inguru joaten dira. Apirilaren 23an eta 24an diru eskaera berezia egin zuten gastuak ordaintzeko, eta eskerrak eman nahi dizkiete bertan lagundu zutenei.

55 urtekoen bazkaria

1950. urtean jaioetakoek bazkaria egingo dute ekainaren 18an. Interesatuak 60 euro sartu beharko dituzte maiatzaren 20a baino lehen Euskadiko Kutzako kontu honetan: 3035.007.21.1034119. Informazio gehiago nahi duenak, 943 74 08 04 (Marivi) telefonora deitu dezake.

Inkesta

Elgoibarren ere gero eta etorkin gehiago dago

Igarri al duzu zure inguruan etorkinen ugaritzea?

UNAI MUÑOZ

Iturgina

20 urte



“Eibarren ibiltzen naiz batez ere, eta han igartzen da. Kanean gero eta etorkin gehiago ikusten dira. Elgoibarren gutxiago, baina oraindik etorriko dira.”

YOLANDA FERNANDEZ

Fundizioko langilea

33 urte



“Bai, mordoia daude, gero eta gehiago. Ni haurdun nago, eta Osasun Zentroan atzeritar askorekin egin dut topo. Gainera, gehituz joango dira.”

MARISA JURADO

Begiralea

22 urte



“Bai, Elgoibarren eta inguruko herri guztietan ikusten dira. Kanean, batez ere, eta bestela inork nahi ez dituen lanetan ikusten dira. Alde horretatik bizimodua errazten digute.”

IOSU CALVO

Ikaslea

13 urte



“Bai, eskolan atzerriko umeak gero eta gehiago daude, eta kanean ere ikusten dira. Guk ez daukagu arazorik, oso ondo konpontzen gara beraiekin.”

[BAI ala EZ?]

Perfila lortu ez dutenekin “eskuzabal” jokatu beharko al luke Jaurlaritzak?

BAI %0

“Ez, lotsagarria iruditzen zait. Besteenganako errespetu falta da, liberatuta egonik, perfila ez lortzea (perfil bajua izaki), beste batzuk ahalegin hori bere kabuz egin behar izan dutelarik.”

EZ %100

“Ez. Erraztasun guztiak izan dituzte, eta ganora eta interes faltagatik geratu dira euskara-perfila lortu gabe. Gainera, ikasteko borondatek ez daukan irakasleak, zer irakats dezake?”

Datorren asterako... **Maiatzean 30 kultur eta kirol ekitalditik gora dago.**

Ba al duzu kultur eta kirol ekitaldietara joateko ohiturarik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

JAIOTAKOAK



**Aitor Zubiaurre
Gorostiza**
[Martxoak 31]
Luis eta Maria
Jose



**Xabier Alonso
Monterrubio**
[Apirilak 4]
Mari eta Javi



**Iraitz Pedroche
Soto**
[Apirilak 25]
Guillermo eta
Saray



**Nahia Perez
Mateos**
[Apirilak 11]
Ladislao eta
Esther



**Maren Treviño
Agirregomezkorta**
[Apirilak 29]
Aitor eta Oihana



**Iker Simon
Velado**
[Apirilak 23]
Oscar eta Ainhoa



**Jon Arriola Estarta eta
Lucia Arriola Estarta**
[Apirilak 21]
Jorge eta Miren

**Eider Iturriarte
Labaca**
[Apirilak 7]
Juan eta Edume

HILDAKOAK

Jose Maria Unamuno • [54 urte] • Apirilak 1
Carlos Tesouro • [71 urte] • Apirilak 1
Carmen Lopez • [74 urte] • Apirilak 3
Balentin Jauregi • [83 urte] • Apirilak 8
Victor Ansola • [84 urte] • Apirilak 26
Pedro Rodriguez • [74 urte] • Apirilak 27

EZKONTZAK

Gorka Hernandez Martinez eta Miriam Menor
Villanueva [Apirilak 2]
Oscar Fernandez Maiza eta sandra Pinacho Iriarte
[Apirilak 16]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01



Kazetari familiako bigarren belaunaldia, 35 urte daramatza Andres Egaña (56 urte) Diario Vasco egunkariko Mendaroko berriemaile gisa. Bere aitak, Francisco Egaña, 1945ean hasitako bideari jarraipena eman zion 1969an haren lekukoa hartu zuenean. Hortaz, 60 urte egin ditu Egaña abizenak Mendaroko kronika izenpetzen. Berriemaile lanaz berba egin dugu Andresekin.

ANDRES EGAÑA

DVko MENDAROKO BERRIEMAILEA

«Mendaroko kronika idaztea ez da jendeak uste dezakeen bezain erraza»

- **Noiztik Mendaroko berriemaile?**

Nire aitxa zana, Francisco Egaña, 1945. urtean hasi zen Mendaroko kronika idazten Diario Vasco eta La Voz de España egunkarietarako. 'Corresponsal literario' deitzen zitzairen garai hartan. Aitak 1945etik 69ra jardun zuen eta 1969. urtean lekukoa hartu nion. 35 urte daramazkit berriemaile gisa.

- **Non ikasi zenuen kazetari lanbidea?**

Ez neukan kazetari titulorik, baina aitaren bitartez eta ekinaren eginaz ikasi nuen lanbide hau. Aitari, berriz, La Voz de España-ko Elgoibarko berriemailea zen Paco Salaberriak asko lagundu eta irakatsi zion.

Lan egiteko modua asko aldatu da garai haietatik hona. Aitak dena eskuz idazten zuen eta pertsona batek herriz herri batzen zituen kronikak. Nik hasieratik idazmakinez idazten nuen. Orain, berriz, internet, argazki kamara digitalak, eskanerrak eta beste hainbat berrikuntza teknologiko erabiltzen ditugu lana errazte aldera.

- **Orduko eta egungo gaiak ez dute zerikusirik izango, ezta?**

Halaxe da. Aitaren garaian ez zegoen emateko moduko horrenbeste albiste. Sociedad Cultural Recreativa Gurutzpek antolatutako ekintzak izaten ziren albiste iturri nagusienetakoak. Elkarte honek txangoak, mendi irteerak, jaiak (Andra Mari Eguna

Azpilgoetan eta Santa Anak Garagarzan) antolatzen zituen, besteak beste. Gainerako albiste apurrak Elgoibar eta Mutrikuko Udaletatik iristen zirenak ziren, Mendaro bi herri hauen menpe baitzegoen.

• **Egunero Mendaro moduko herri txiki bateko kronika osatzea ez da lan erraza.**

Egun errazagoa da, batez ere, 1983an Udala sortu zenetik. Orduetik aurrera gauza asko egin dira Mendaron: Ikastola, ospitala, industriaguneak, Jubilatuen Biltokia, frontoia, e.a. Hauek denak albiste iturri bilakatu dira.

• **Inoiz tokatu al zaizu zeri buruz idatzi ez jakiterik?**

Egunak tokatzen dira bai, ez dagoela ezer kontatzeko. Badaezpada beti saiatzen naiz gairen bat gordeta edukitzen horrelakoetarako. Bestalde, nahitaezkoa da gauza asko errepikatu beharra, baina ezin da bi aldiz gauza berdina idatzi eta moldatzen edo ikuspuntu ezberdinetatik lantzen saiatzen naiz.

• **Mendarok jasan duen aldaketaren lekuko zuzena izan zara.**

Bai, Mendaro asko aldatu da, gaueetik egunera moduko aldaketa bizi izan du.

«Egunak tokatzen dira, bai, ezer kontatzeko ez dagoela»

• **Autonomian osoa duzu ala lan egiten duzun enpresak markatzen dizu lanaren nondik norakoa?**

Gairen batek bere garrantziarengatik leku gehiago behar duela iruditzen bazait nagusiei deitzen diet. Beste batzuetan, berriz, nik bidalitako kronika moztu egin dutela konturatzen naiz. Zenbaitzuetan titularrak ere aldatu edo laburtu izan didate eta zentzua aldatzea ere gertatu izan zait. Bailerako beste herri batzurekin



partekatzen du orrialdea Mendarok eta nomala da. Ez naiz kexu, herri txiki izateko leku polita ematen baitigute. Beste batzuetan, berriz, norberak egiten ditu hanka sartzeak, baina lan honetan nomala da. Beti saiatzen naiz hurrengo egunean okerrak zuzentzen.

«Mendaroko Udala sortu zenekoa izan zen albiste bereziena»

• **Eman dituzun albisteetatik bereziki poztu zaituen bat?**

Mendaroko Udala sortu zenekoa, esaterako. Ospitala Mendarora ekartzea ere albiste garrantzitsua izan zen, are gehiago Eibarren egiteko zorian izan zirela kontutan hartuz gero. Azitainen edo Mendaron egin zalantzan egon ziren baina Mendaro aukeratu zuten. Lorpen handia izan zen herriarentzat, orain ospitala txiki geratu bada ere. Kirol arloan, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Mendaron amaitu izana eta Urrezko Aizkorako saio bat bertan jokatu izana nabarmentzekoak dira.

• **Kilimoia desagertu zenetik kiroletan hankamotz, ezta?**

Bai. 1974. urtean inauguratu zen Ospas Gain futbol zelaia. Astearengatik pare bat kronika egiteko aukera ematen zidan Kilimoiak. Astearte batean zeri buruz idatzirik ez baneukan, beti jo nezakeen futbolera. 30 urtean Kilimoia gora-behera guztiak jarraitu ostean, pena handia eman zidan desagertzeak.

• **Lanbide polita iruditzen al zaizu?**

Gustura aritu naiz, bestela ez nintzen horrenbeste urtez arituko.

Egunero Mendaroko kronika idaztea ez da jendeak uste duen bezain erraza. Egunkarian ikusterakoan badirudi uskeria bat dela, baina txikieriak diruditenak ere denbora asko kentzen dute.


GAZTIA NAIZ

Look aldaketa

Aiora Azagirre

Atxutxiamaike Aisialdi Taldeko zuzendaria etorri zaigu gaurkoan. Lasai agertu da, bere baldintza bakarra, guraizak atzetik ez sartzea da: "Beti izan dut ile motza, gero luzatzen utzi nuen, baina aspertu egin nintzen, eta gaineko alde moztu nuen". Azkenean, ile apaintzaileak guraizak apur bat erabili ditu, baina gustora gelditu da Aiora. Ispilu aurrean denbora gutxi pasatzen duela aitortu digu, eta horretarako ile mozketa aproposa egin diote. Gaurkoan udalekuetara joaten den ume batek baino gehiagok, ez du Aiora ezagutuko!

Lehen



Orain



prozesua...

Idama ileapaindegian



Goiko aldetik dezente moztu diogu ilea, eta frekiloa alde batetik bestetik baino luzeago utzi diogu. Berak etxean erraz moldatu dezake orrazkera hau.



Buruaren albo bakoitzean motz-motz utzi diogu ilea, eta marrazkitxo batzuk egin dizkiogu makinilarekin. Aurpegia garbi utzi diogu.



Plantxekin ilea lisatu, eta atzetik dena jaso diogu. Goiko aldean kresta txiki batzuk jarri dizkiogu. Irudimenezko orrazkera modernoa da.

Zure itxura DOAN aldatu nahi al duzu? Jarri gurekin harremanetan: barren@elgoibarkoizarra.com



bituzik sexologia txokoa

Eli Moreno [Sexologoa]

Homosexualitatea

Gai honetan ni ez naiz aditua, baina nire eguneroko bizipenek gazteekin zertxobait erakusten didate eta eguneroko errealitate honetan oinarrituko naiz gai honi erantzuteko.

• Nola bizi dute gaur egungo gazteek homosexualitatea?

Gazte batentzako zaila da onartzea bere sexu edo desio orientazioa ez dela gizarteak markatzen duena. Presio heterosexuala oso handia da, eta honen kontra joatea asko kostatzen da. Gaztetxo batek sentimendu nahasiak ditu eta, hasiera batetan, honen kontra joateko nahia eta zalantzak azaltzen ditu: zeini esan, nora jo, zer pentsatuko du jendeak eta gurasoek??? Nire sentimendu berak dituen beste pertsonak egongo al dira? Sentiitzen dudana benetakoa al da?

• Lehen baino rekiagoa al da gizartea?

Bai, baina honek ez du esan nahi homofobia ez denik. Oso markatuta daukagu estereotipoak eta honek ez digu laguntzen aurrera pausoak ematen. Zerbait "normatik" ateratzea onartezina iruditzen zaigu. Bestalde, gaur egungo "politikoki zuzena" delakoaren haritik, denok dakigu zer erantzun homosexualitateaz galdetzen badigute baina jarrera eta jokabide homofoboak hor diraute: txisteak, burlak ...

• Se xu kontuetan ere neskek zailago al dute gizartearen onarpena?

Baietz pentsatzen dut, emakume gutxiago daude lesbianak direla esaten dutenak eta agian sentimendu hauek dituzten emakumeentzat eredurik ez izatea zailtasun bat da. Bestalde emakumea orain dela gutxi arte gizonen propietateko zerbait izan da, gure sexualitatea ez da existitu, beraz, orain da momentua errebindikazioak egin eta aurrera pausoak emateko.

• Nora jo dezake gazte batek?

Gehitu, Egham, Hegoak, Berdinu... Biluzik ere hor dago, asteazkenero 5etatik 8etara, Kultur Etxean.



BEKAK

TXANDAKAKO PRAKTIKAK GUGGENHEIM-EN

Baldintzak: Unibertsitatean matrikulatua izatea eta 2005-06 ikasturtean diplomatura, lizentziatura edo doktoregoa ikastea. Eskainitako lanpostuak: bisitarietako arreta, diseinu grafiko arloan, itzulpengintza, argazkigintza... Epea: maiatzak 15. Zenbatekoa: 300 euro hilean. Informazioa: 944039180, www.guggenheim-bilbao.es

IKASTAROAK

HAITZETAKO ESKALADA

Gipuzkoako Goi mendi Eskolak antolatua. mendian federatuta egotea beharrezkoa da. mailak: hastapenak eta hobekuntzat. Tokia: txindoki eta Egin. maiatzaren 14-15 eta 21-22 astebevuuetan. Epea: maiatzak 12. Informazioa: 943 461440.

LANA

12 ONTZIGINTZA INGENIARI

Ontzigintza Ingeniariak behar dira Sustapen Ministeriorako. 12 lanpostu betetzeko oposizioa. Lanpostu guztietatik 1 gordeko da legez %33ko minusbalia edo haundiagoa duten pertsonentzat. Epea: maiatzak 12. Informazioa: 91 2731400

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA

lasarte Oriako Udalak administrazio orokorreko teknikaria behar du. Baldintzak: zuzenbideko lizentziatua, politika, Ekonomia edo Enpresa zientziatako lizentziatua. Euskarako 3. hizkuntza eskakizuna. Epea: maiatzak 21. Informazioa: www.lasarte-oria.org

LEHIAKETAK

DONOSTIA HIRIA

Kutxa Fundazioak, Donostia Hiria Literatur lehiaketa deitu du. Gaztelerazko ipuina- XLVIII sari eta Euskarazko ipuina XXVIII saria. Gaztelerazko antzerkia-XVII saria ta Euskarazko antzerkia XVII saria. Sariak: 7.000 eta 14.000 euro bitartean eta garaikurra. Epea: urriak 15. Informazioa: www.kutxasocial.net

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461



Astelehen-astearte/ostegun-ostiral
16:00-19:00

IMHk liP ziurtagiria jaso du

Elgoibarko Erraminta Makina Institutuak Investors in People ziurtagiria jaso du Bergara, Bidasoa, Tolosa eta Usurbilgo lanbide Heziketa ikastetxeekin batera. Agiria estreinakoz eman da Estatuan baina mundu osoan 35.000 erakunde baino gehiagok dute. Honakoa da nazioarteko lehen agiria pertsonen garapen profesionalerako eta heziketarako praktika egokiak arautzen dituen eta erakundeen emaitzak hobetzea du helburu.

Ziurtagiria apirilaren 27an jaso zuten Donostiako Miramar jauregian izandako ekitaldian, eta bertan izan ziren Anjeles Iztueta Hezkuntza Sailburua, Jorge Arevalo, Lanbide Heziketako sailburuordea, Iñaki



Mujika Lanbide Heziketako zuzendaria eta David Dale eta Anne MacCool ziurtatzaileak. Bestalde, apirilaren 28an Fernando Tapiak, Gizarte eta Erakunde

Harremanetarako Saileko diputatuak, IMH bisitatu zuten eta IMHko Goazen euskara planari Gipuzkoako Aldundiak laguntza emango diola aipatu zuten.



Gogoz hartu zuten haurrek Kiribilkaren itzulera

Joan zen ostiralean izan zen Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Kiribilka programaren estreinaldia, eta haurrek gogo handiz hartu zuten Kiribilen itzulera. Ume mordoak bildu zen Plaza Handian, eta gurasoak ere dezente, nahiz eta hauek ez zuten

gehiegi parte hartu. Lehenengo saio honetan abestu eta dantza egin zuten. Gaur, Behi Bi's taldearen "Ni arratoi" ikuskizuna izango da Herriko Antzokian, eta Kiribilkaren hurrengo saioa maiatzaren 15ean izango da Plaza Handian.

Bihar, maiatzak 7, Atxutxi Krosa

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, krosa izango da bihar Haur Hezkuntzako umeentzat. 11:30ean hasita, eguerdiko 13:00ak aldera arte luzatuko da. Plaza Handian hasita, Errosario kaletik Kultur Etxera eta San Bartolome kaletik berriz Plazaraino egingo dute korrika haurrek. Krosaren aurretik tailerrak izango dira.



[IRTEERAK]



Pilar Ikastetxeokoak Zubietan

Pilar Ikastetxeoko ikasleak Zubietan izan ziren apirilaren 19an. LH2tik hasita, LH6. mailara arteko ikasle guztiak joan ziren. Zubietako ingurunea ezagutu ostean, Errealaren entrenamendua ikusteko aukera izan zuten, eta bukatu zenean autografoak eskatu eta jokalariekin argazkiak atera zituzten. Eguraldi oso ona egin ez zuten arren, oso ondo pasatu zutela esan digute.

GALIZIARREN ASTEA

"Semana Das Letras Galegas" asteburuan ospatuko da



Elgoibarko galiziarrek "Semana Das Letras Galegas" jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan, maiatzaren 6tik 8ra bitartean. Aurtengoak Xesus Manuel Lorenzo Varelari eskainitako jaiak izango dira. "Superfama" orkestrak girotutako dantzaldiak emango die hasiera ekintzei gaur, hilak 6, 22:30etik aurrera Herri Eskolako patioan. Taberna zerbitzua eta Queimada dastatzea izango dira bertan. Zapatuan, berriz, Irixe (Ourense) Udaleko Gaita Bandak ekitaldiak eskainiko ditu egunean zehar eta 11:00etatik aurrera Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera izango da Herri

Eskolako patioan: haragi enpanada, lakoi egosia, belarri egosia, olagarroa Feira erara, santiago tarta, e.a. "Superfama" orkestra entzuteko aukerarik ere izango da gabean.

Domekan, berriz, Meza santua ospatuko da San Bartolome parrokian (10:00), herrian hildako galiziarren omenez. Eguerdiko 13:00etan Haritz Euskal dantzari Taldeak harrera egingo dio Sarreausko (Ourense) Udaleko Gaita Bandari. Bi taldeek Euskadiko eta Galiziako folkloreen erakustaldia eskainiko dute. Agendako orrietan aurki dezakezue egitarauari buruzko jakingari gehiago.

Gaztetxean eta kalean

"Gaztetxean eta kalean" izenpean egitarau zabala antolatuko du Elgoibarko Gazte Asanbladak maiatzaren 7rako. Herriko kaleetan zehar egingo duten trikopoteoarekin hasiko dute eguna. Okupaturiko Gaztetxe zaharretan plaka oroigarriak jartzeko eta aureskua dantzatzeko egingo dituzte geldialdiak. Ondoren etorkizuneko Gaztetxeari bisita egingo diote. Eguerdiko 14:31ean bazkari herrikoa egingo dute Madalan eta bertsolariak alaituko dute bazkalostea. Azkenik, gabean, kontzertuen txanda izango da. Inguruko herrietako bost talde igoko dira Madalan jarri den eszenatokira.



ARMERIA ESKOLA

Goi Mailako L.H.ko Berariatzko Institutua
Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44

2005/2006 IKASTURTEA



HEZKUNTZA ESKAINTZA - "A" eta "D" EREDUAK (Gauzez eta Egunez)

BATXILERGOA
ERDI MAILAKO
ZIKLOAK
GOI MAILAKO
ZIKLOAK

TEKNOLOGIKOA
MEKANIZAZIOA
EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK
PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA
MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA
TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK
ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK

IZENA EMATEKO:

Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak, apirilaren 25etik maiatzaren 6ra (biak barne).
Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak, ekainaren 1etik 8ra (biak barne).

EUSKARA ETA MENDIA

Elgoibarko Izarrak eta Morkaikok "Herri bat mendian gora" egitasmoa antolatu dute

Morkaiko Mendizale Elkartek eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek "Herri bat mendian gora" egitasmoa antolatu dute. Maiatzaren 12an hasi eta ekainaren 5era arte luzatuko den programaren helburua bikoitza da antolatzaileen esanetan. Batetik, mendiak eta mendizaletasunak gure herrian izan duen eragina azaltzea. Izan ere, Imanol Larrñaga, Elgoibarko Izarrako dinamizatzailearen hitzetan, "bai Euskal Herrian eta baita Elgoibarren ere, aspaldi hasi zen mendiarekiko zaletasuna pizten. Gure herria beti egon da mendiari begira, mendiari lotuta. Eta honek, besteak beste, gure herriaren nortasunean ere eragin du". Bestetik, mendiak eta euskarak urteetan izan duten lotura azpimarratzea nahi dute bi elkarteek. Imanolek aipatu duenez, "Euskarak unerik txarrenetan, baserri eta etxeko sukaldearekin batera, gure mendiak izan ziren euskararen gordeleku".



Esan bezala, maiatzaren 12an izango da egitasmoaren lehen saioa. Arratsaldeko 19:30ean hasita, Antton Iturrizak hitzaldi-proiektzioa eskainiko du "Mendizaletasuna Euskal Herrian" gaiaren inguruan, eta ekainera bitartean heritarrek beste hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera paregabea izango dute eskura.

EGITARAUA

- **Maiatzak 12 (19:30)**
Antton Iturrizaren hitzaldi-proiektzioa "Mendizaletasun Euskal Herrian" gaiaren gainean.
 - **Maiatzak 15**
Mendi Itzulia
 - **Maiatzak 19 (21:30)**
Elgoibartik Durangora irteera "Ibilaldia 2005 mendiz mendi oinez" lemapean.
 - **Ekainak 2 (19:30)**
Mahaingurua Pako Iriondo, Patxi Lizarralde eta Felix Etxeberriarekin. Gaia, "Elgoibar mendiari begira".
 - **Ekainak 5**
Finalista eguna San Pedron.
- Musika Eskolako Auditorioan**

Igor Elizburu Euskadiko Handbike txapeldun



IX. Paralinpikoentzako Bizkaiko Bira ospatu zen apirilaren 30etik maiatzaren 2ra bitartean. Igor Elizburu elgoibartarrak Handbike modalitatean parte hartu zuen. 12 kilometroko luzera zuen lehen eguneko etapan 2. postuan sailkatu zen. Hurrengo egunean Getxoko belodromoan jokatu zen erlojuz kontrako 5 kilometroko proban ere 2. postua eskuratu zuen. Azkenik, hirugarren eguneko etapan, 22 kilometrokoa, 1. postua eskuratu zuen. Euskadiko Handbike Txapelketa ere bazen Bizkaiko Birako azken etapa eta Igorrek jantzi zuen txapela. Nazioarteko partaidetza izan du Bizkaiko Birak hainbat modalitatetan eta giro ezin hobea aurkitu zuela azaldu digu Igorrek.

Bost herritar Aloñako Igoeran

Zegama Aizkorri Mendi Maratoia maiatzaren 29an ospatuko da, elgoibartarrek gogor jarraitzen dute prestakuntza lanekin eta 5 antxintxikarik Aloñako Igoeraren lehen edizioan parte hartu zuten maiatzaren 1ean. Oñatin hasi eta bukatu zen probaren irabazlea Ionut Zinca errumaniarra izan zen 1:14:13 denborarekin. Guztira 2016 metroko desnibela osatzen da 16,5 kilometrotan. Lasterketa hau Euskadiko gogorrenetako bat da, 8 kilometrotan 1000 metro igotzen direlarik. Honako hauek izan ziren elgoibartarren postu eta denborak: David Conde 1:24:16 (25. postuan), Ion Revert 1:26:37 (35. postuan), Asier Arrieta 1:32:57 (73. postua), Manuel Ramos 1:35:25 (94. postua) eta Luis Santamaria 1:36:54 (101. postuan). Guztira 136 lasterkarik parte hartu zuten.



UDALTZAINENTZAKO DUATLOIA

Josean Ruiz Duatloi Txapelketako Euskadiko txapeldunorde

Santurtzin jokatu zen proban lortu zuen bigarren postuari esker Josean Ruiz da Udaltzaintzako Euskadiko Duatloi txapeldunorde berria. Espainiako Koparen barruan kokatzen da Santurtziko duatloia eta Espainia guztitik joandako udaltzainek parte hartu zuten bertan: madrildarrak, kataluniarrak, valentziarrak, galiziarak, e.a. Guztira 96 udaltzain batu ziren, euskaldunak izanik gehienagoa. Bost kilometro korrika, 23 kilometro bizikletaz eta 2,5 kilometro oinez egin ostean, Pedro Antonio Esmoris galiziarak irabazi zuen proba 1:05:22 denborarekin. Arteixoko udaltzain honek irabazi zuen iaz Udaltzaintzako Espainiako Duatloi Kopa. Ruiz elgoibartarra 9. postuan sailkatu zen



1:09:13 denborarekin. Bilboko udaltzain batek bakarrik kendu zion euskaldunik bizkorrena izateko aukera.

Arkaitz Mujika zazpigarren Urrariko Igoeran



Arkaitz Mujika, Azysa afizionatu mailako txirrindulariak. Sierra de Espuña-ko Itzulian parte hartu zuen lorcan (Murtzia). Zapatuko etapan 10. postuan sailkatu zen eta 6. postuan domekan. Sailkapen nagusian merituzko 6. postua eskuratu zuen. Hamar orduko itzulera bidai nekagariaren ostean, Urrariko Igoeran parte hartu zuen maiatzaren 1ean. Maila handiko txirrindulariek parte hartu zuten 37 kilometroko proban eta 7. postuan helmugaratu zen elgoibartarra. Sasoi puntu ona hartu duela eta datozen lasterketetan aurrean egoteko itxaropena duela aitortu digu.

Josemi Gabilondo onena auto klasikoetan

Josemi Gabilondo elgoibartarrak gidatutako Renault Alpine mitikoa nagusitu zen Arrateko Igoeran, auto klasikoetan alorrean. Unai Agirrerren Mini Cooper-a sailkatu zen 2. postuan. Sailkapen nagusian, Ander Vilarinok lortu zuen lehen postua Reynard 3000 autoarekin. Gainera, hondarbitarrak probako errekorra hautsi zuen. Bestalde, Azkoitiko Rallysprint-a ere ospatu da asteburu honetan Azkarateko errepide zaharrean eta Iñaki Alberdi azpeitiarra nagusitu zen Toyota autoa gidatuz.



[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 0 - Zamudio **0** (3. maila)
Elgoibar 2 - Umieta **0** (1. erreg.)
Durango 1 - Elgoibar **0** (Jub.)
Anaitasuna 3 - Elgoibar **1** (Kad.)
Touring 4 - Elgoibar **2** (Inf. A)
Aretxabaleta 1 - Elgoibar **2** (Inf. B)
Zarautz 4 - Elgoibar **4** (Aleb.)
Elgoibar 4 - Ilinxa **1** (Neska)

ARETO FUTBOLA

Laskorain 9 - Kenci Elg. **4** (Nazional B)
Lugaritz 6 - Lanbroa **4** (1. maila)
Toletxe 1 - Lauburu **4** (Jub.)

PILOTA

Debaroko Txapelketa

lagunak A 4 - Oskarbi **22** (Nag)
lagunak B 10 - Eskoriatza **22** (Nag)
lagunak 22 - Eskoriatza **2** (Jub.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 7
15:00 Elgoibar - Billabona (Kad.)
19:00 Elgoibar - Lengokoak (Inf. B)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Zapatua, 7
16:00 Kenci Elg. - Altamira (Nazional B)
Domekia, 8
12:30 Lanbroa. - Eraso (1. maila)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 8. SARIA

HAUNDIko jokalaririk erregularrena **04/05**

Jokalaria	Puntuak
1. J. Arrasate	42
2. J. Igartua	37
3. Navarrete	35
4. David	30
5. M. Elgoro	28
6. Ibai Gonzalez	27
7. A. Arenas	25
8. Loren	21
9. Javi Gomez	20
10. Etxabe	18
11. I. Oruesagasti	16
12. Mikel Calvo	15
13. Iribar	8
14. Guinea	7
15. Urzelai	5
16. Unai	3
17. Mandiola	2

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Elgoibarko enpresak **fresatzeko makinarako langilea** behar du. Erref. 162005002145
- Eskoriatzako enpresak **soldadorea** behar du. Erref. 162005004103
- Eibarko enpresak **erakusketetarako azafata** behar du. Erref. 162005004142
- Arrasateko enpresak **erakusketetarako azafata** behar du. Erref. 162005004147
- Zarauzko enpresak **eskaiolista** behar du. Erref. 162005004224
- Debako enpresak **etxez-etxeko laguntzailea** behar du. Erref. 162005004213
- Eibarko enpresak **elektrikaria** behar du. Erref. 162005004181
- Azkoitiko enpresak **inkestazalea** behar du. Erref. 162005004063
- Arrasateko enpresak **informatika osagaien saltzailea** behar du. Erref. 162005003477
- Zarauzko enpresak **CNC programatzailea** behar du. Erref. 162005004161
- Arrasateko enpresak **industriarako peoia** behar du. Erref. 162005004042
- Oñatiko enpresak **muntatzaileak** behar ditu. Erref. 162005004071
- Azkoitiko enpresak **bidaiaragintzarako langilea** behar du. Erref. 162005003992

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

[LANA]

ESKAERA

- † Emakumea (hemengoa) ospitalean gaixoak zaintzeko prest. Orduka, eta gabez. Esperientzia daukat. ☎ **943 53 17 45 (gavez)**
- † Mutila nagusiak zaindu, txofer, edo igeltsaritza lanetarako prest. ☎ **670 25 78 04**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarreak, portalak, tabernak... ☎ **639 88 20 04**
- † Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **665 755 211**
- † Bi neska gazte udan umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **639 43 35 57**
- † 17 urteko bi neska haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **616 88 30 97**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, kamarera edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **646 23 51 95**

ESKAITZA

- † Kamareroa behar da. ☎ **649 96 38 92**
- † Sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943 74 10 12**
- † Iturgina behar da Elgoibarren. ☎ **650 586 144**
- † Debako Kresala hotel-jatetxeak lanetarako jendea behar du. Departamentu guztietarako. Interesatuek curriculuma eraman pertsonalki. **Markiegi kalea 6, Deba.**
- † Kamareroa behar da. ☎ **943 74 10 12**
- † Jatetxerako sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943 12 12 62**
- † Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Egun solteak. ☎ **687 530 128 (19:00etatik aurrera)**
- † Emakume edo neska euskalduna behar da haurrak zaintzeko. ☎ **607 560 355**

[GARAJEAK]

- † Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ **943 74 27 78**
- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m². ☎ **646 50 28 66 (arraisaldez)**
- † Aita Agirre Plazan garaje itxia alokatzen da. 90 euro. ☎ **660 795 301**
- † Garajea alokatzen da J. Mugerza behean. Maraduna. ☎ **943 74 32 88**
- † Garajea salgai Urasandin. ☎ **943 74 07 26 (21:00-22:00)**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai Ubitarten. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berritua, altzari eta ganbararekin. ☎ **652 71 67 24**
- † Etxea salgai Mendaron. 77m² Bizitzera sartzeko moduan, dena kanpora. ☎ **659 71 57 22**
- † Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua. ☎ **677 780 680**
- † Etxe berria salgai Soroluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garaieja, entrepilanta, txokoa. ☎ **615 77 99 20**
- † Etxea salgai Basarten. 75m² Dena kanpora. 2 logela armairuekin, 2 komun, egongela, sukaldea, garaieja. ☎ **652 70 99 15**
- † Etxea salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena berritua. ☎ **943 74 18 83 (Ignacio)**
- † Baserrira salgai Bergaran. 2 solairu, 30.000 m² terrenoa. 465.785 euro. ☎ **615 78 08 42**
- † Etxea salgai Errosario kalean. Berogailu zentrala, sukaldea, 3 logela, egongela, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko prest. ☎ **943 74 02 68**
- † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m² Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia garaieja. ☎ **687 23 58 39**
- † Pisua salgai Artetxen (Inñiguez de Karkizano). Berritua, altzariarekin, dena kanpora, ganbararekin. ☎ **627 94 12 61**

ALOKAIRUA

- † Pisua hartuko nuke alokairuan edo etxea konpartituko nuke. ☎ **605 74 69 09**
- † Logela behar du. La egin eta erropak garbitzeko. ☎ **943 74 42 92 (Felipe)**
- † Logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **615 00 83 46**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar eta Mendaro artean. ☎ **616 37 03 23**
- † Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz). Igerilekua eta autoa aparkatzeko tokia. ☎ **653 73 34 57**
- † Donostia erdialdean pisu berria alokatzen da udan. ☎ **653 73 34 57**
- † Peñiscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... ☎ **964 49 10 22**
- † Peñiscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itsasora eta mendira begira. ☎ **964 49 10 22**
- † Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz). Bateles hondartza ondoan. Jantzita. Maiatza, iraila, urria eta hurrengoak. ☎ **680 44 26 68**
- † Apartamentua alokatzen dut Saloun, Novelty erakuntzan. Jantzita, aire egokitua, igerilekua, garaieja, terraza. Harrera zerbitzua 24 ordu. ☎ **629 98 98 99**

- † Pisua alokatzen da Elgoibarren. ☎ **943 74 08 64**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **690 70 11 18**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **943 75 15 81**

[SALEROSKETAK]

- † Konika markako argazki kamera digitala salgai. 2.1mp. Gutxi erabilia. 100 euro. ☎ **676 61 70 55/659 79 06 77 (19:00etatik aurrera)**
- † Logelarako altzariak salgai. 90zm-ko bi ohe eta armairua. Prezio ona. ☎ **676 61 70 55/659 79 06 72**
- † Elikagai denda salgai jubilazioagatik. Arregitorre 8, behea. ☎ **943 74 30 91**
- † Haur sehaska salgai. Oso polita. ☎ **943 74 16 19**
- † Bigarren eskuko motorra erosiko nuke. ☎ **661 22 51 49**
- † 90zm.ko somiera salgai. Berrita, laminaduna. 50 euro. ☎ **943 53 17 45**
- † Hyundai Coupe autoa salgai. SS-3755-AX. 130.000km. Egoera oso onean. ☎ **943 74 24 26**
- † Haur aukia salgai, 3 gurpilduna. Poltsa, zakua eta auritakoarekin. Maxi-taxi sattedi-sx. 2004. urtekoa. 325 euro. ☎ **616 69 02 68 (Leire)**
- † Seat Cordoba Sport 1.900 Tdi salgai. 100 zaldi. Urte bat. ☎ **943 03 02 70**
- † Andregai soinekoa eta konplementoak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. ☎ **943 08 00 81/615 72 64 30**
- † Ordenagailurako 17" pantaila salgai. Mitsubishi Diamond Scan. Berrita, 4 urte, merke. ☎ **658 62 99 47**

[PARTIKULARRAK]

- † LHko klase partikularrak ematen dira. ☎ **639 43 35 57**

[BESTERIK]

- † Gozotegi-kafetegia traspasatzen da Elgoibarren. ☎ **943 74 28 75**
- † Taberna alokatzen da. Sukaldea eta jangela ditu. ☎ **637 43 82 45**
- † 943 74 03 92 (goizez)
- † Urasandiko harategi ondoan perikito hori eta berdeak ihes egin zuen apirilaren 26an. Aurkitzen duenak deitu mesedez. ☎ **943 74 08 63**
- † Katu siamesa aurkitu dugu San Pedroko etxeetan. Marroi iluna, lepo zuria. ☎ **661 03 00 87**
- † Urrezko eraztun bat galdu nuen Ikastolako saskibaloi kanxan zapa-tuan, joko eskolarretan. ☎ **943 74 42 06 (Mari Karmen)**

[ZORIONAK]



† Zorionak **Oscar** bost urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



† Zorionak **Joana** Bi egun falta dira zure jauntzerako. Egun polita izan dezazula, familiakoen partez.



† Zorionak **Gemma** oso margolari eta persona ona zarelako. Jairo eta Alaznereen partez.



† Zorionak **Olatz** maiatzaren 7an 3 urte egingo dituzulako. Ion, Asier, Unai eta Aitor anaiaren partez.



† Zorionak **Yanela-Haizea** hilaren 9an urtebete egingo duzulako. Aiton-amona eta osaba-izeben partez.



† Zorionak **Maider** hilaren 8an bost urte egingo dituzulako. Familiakoen eta Eneritz eta Arkaitzen partez.



† Zorionak **Aitor** hilaren 13an zure urtebetetze eta jauntze eguna delako. Familiakoen partez.



† Zorionak **Mikel** hilaren 5ean 13 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Iraitz** hilaren 8an lehen jauntzea egingo duzulako. Familiakoen eta anai Enekoen partez.



† Zorionak **Nerea Perez** igandean jauntzea egingo duzulako. Ane, losu, Esther eta Mariaren partez.



† Zorionak **Maialen** hilaren 4an 11 urte egin zenituelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



† Zorionak **Maria** bihar 3 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta anai Jonen partez.



† Zorionak **Imanol** hilaren 8an zure jauntzea delako eta 10ean zure eguna. Etxeko partez.



† Ondarruko **karramaro harapatzaileari** zorionak hilaren 10ean 3 urte egingo dituelako.



† Zorionak **Nora** 8 urte egin zenituelako. Ane eta gurasoen partez.



† Ondo pasatu genuen zure urtebetetzea ospatzen. Zorionak ikastolako laguntxo partez.



† Zorionak **Iker** atzo 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiako partez.



† Zorionak **etxeko printse-sari** zure 3. urtebetetzean. Guraso, Luken eta familiako partez.




† Zorionak **Iker** atzo 3 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez muxu handi bat.



† Zorionak **Unai** eta **Ane** zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bana lagunuen eta familiako partez.



† Zorionak **Jesus** eta **Mariasun** maiatzaren 10ean zilarrezko ezteiak ospauko dituzuelako. Familiako partez.



† Aupa **Txatxus!** Ondo pasatu gaur, zure eguna da-eta! Muxu handi bat family-fever-en partez.

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



8 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
6	Fernandez	Fernandez	IBÁÑEZ
7	Yudego	Yudego	Rekalde, 1 Soraluze.
8	Yudego	Yudego	Tel: 943 75 16 38
9	Zabaleta	Zabaleta	FERNANDEZ
10	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	Herriko enparantza 4, Garagarza.
11	Ibañez	Ibañez	Tel: 943 75 61 42
12	Bidasolo	Bidasolo	ZABALETA
13	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	Kalebarren, 9 Soraluze.
			Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekaria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kiroldegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emaileak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
UDALA		ADINEKOEN ETXEAK	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharen Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14	IKASTETXEAK	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udalzaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua • Arreiture	943 74 80 19
		•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
		Ikastola	943 74 44 41
		Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
GARRAIOAK			
Eusko Trenbideak	943 74 04 42		
PESA (Eibar)	902 10 12 10		
Taxi geltokia	943 74 08 98		
Bizkaibus	902 222 265		



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:

7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak:

7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:

9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:

6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:

8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:

12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:

6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:

7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:

6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

Asteburu eta jaiegunak:

7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[6 BARIXAKUA]

17:30 ANTZERKIA

Kiribilka Programa

Antzezlan: "Ni arratoi"

Taldea: "Behi Bi's"

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

Herriko Antzokian

2-6 urte bitarteko haurrentzat

19:00 "SEMANA DAS LETRAS

GALEGAS" JAIEN HASIERA

Antolatzailea: Galiza Kultur Etxea

22:30 KONTZERTUA

Taldea: "Superfama" orkestra

Herri Eskolako patioan

[7 ZAPATUA]

11:00 MUSIKA

Taldea: Irixo Udaleko Gaita Banda

Urasandi auzoko kaleetan

Ondoren, galiziako jaki tipikoen

dastaketa Herri Eskolako patioan

11:30 ATXUTXI KROSA

Plaza Handian

Haur Hezkuntzako haurrentzat

Antolatzailea: Atxutxiamaika

12:01 TRIKIPOTEOA

Elgoibarko kaleetan zehar

Bidean plaka origarriak eta

aurrekua dantzatzea okupatutako

Gaztetxe zaharretan

Antolatzailea: Gazte Asanblada

13:30 KONTZERTUA

Taldea: "Superfama" orkestra

Herri Eskolako patioan

14:01 ETORKIZUNEN

GAZTETXEARI BISITA

Antolatzailea: Gazte Asanblada

14:31 BAZKARI HERRIKOIA

Musutruk

Ondoren, bertsolariak: Miren

Artexe (Hendaia), Egoitz Lizardi

(Hendaia), Iñigo Izagirre (Itziar),

Julen Zulaika (Zarautz)

Antolatzailea: Gazte Asanblada

Madalan

16:00 ERREFLEXOLOGIA

Irakaslea: Manu Alvarado

Aubixa baserrian

16:30 HAURRENTZAKO JOLASAK

Herri Eskolako patioan

18:00 GALIZIAKO JAKI TIPIKOEN DASTATZEA

Herri Eskolako patioan

19:30 MUSIKA

Irixo Udaleko Gaita Banda

Plaza Handian

20:00 KONTZERTUA

Taldea: "Superfama"

23:00 KONTZERTUA

Taldea: "Superfama"

22:01 KONTZERTUA

Taldeak: "Destitxie" (Azpeiti),
"Desprezio" (Plentxi-Arrasate),
"Inaurkeim" (Ametzaga), "Esan!"
(Bergara), Existencia Insoportable"
(Arezpalditza)

Antolatzailea: Gazte Asanblada

Madalan

[8 DOMEKIA]

09:30 DIANA

Elgoibarko Udal Txistulari
Bandaren eta Irixo Udaleko Gaita
Bandaren eskutik

10:00 MEZA SANTUA

San Bartolome parrokiari
Herri hildako galiziarren omenez

13:00 FOLKLORE IKUSKIZUNA

Haritz EDT eta Sarreauseko
Udaleko Gaita Banda
Herri Eskolako patioan

14:30 BAZKARI OFIZIALA

Agintari eta gonbidatuekin

18:00 MUSIKA

Irixo Udaleko Gaita Bandaren
agurra

19:00 GALIZIARREN JAIEN AGURRA

[12 EGUENA]

17:00 ERIZ MAGOA

Liburutegian

18:30 ATE IREKIEN EGUNA

Ingeniaritza goi mailako heziketa
zikloetako ikasleei zuzenduta

IMHn

[13 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

17:30 KONTZERTUA

Sotoko Hotsak

Taldea: "Mengele Quartet"

Antolatzailea: Sinuose

Sarrera: 3 euro

18:30 IKASTOLAKO JAIALDIA

Ikastolako frontoian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Million dollar baby»

6, barixakua: 22:15

7, zapatua: 19:30-22:15

8, domekia: 19:30-22:15

9, astelehena: 22:15

«Los Chicos del coro»

13, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«El Reino de los cielos»

6, barixakua: 19:30-22:15

7, zapatua: 17:00-19:45-22:30

8, domekia: 17:00-19:45-22:30

9, astelehena: 19:30-22:15

10, martitena: 19:30-22:15

11, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«El Hundimiento»

6, barixakua: 19:30-22:15

7, zapatua: 17:00-19:45-22:30

8, domekia: 17:00-19:45-22:30

9, astelehena: 19:30-22:15

10, martitena: 19:30-22:15

11, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

S I N O P S I A K

«Million dollar baby»



Zuzendaria: Clint Eastwood.

Antzezleak: Clint Eastwood, Hilary Swank, Morgan Freeman

Frankie Dunnek boxeolaririk onenak entrenatu ditu bere karrera luzean. Irakatsi dien irakasgaiak garrantzitsuena bere bizitarako darabilen bera da; gauza guztien gainetik norbere burua babestea, alegia. Alabarengandik derrigorrez banandu beharra izan ostean, ez da gai izan beste pertsona batengana hurbiltzeko. Scrab izeneko boxeolari ohi zahar bat du lagun bakartzat. Egun batez Maggie Fitzerald azalduko da gimnasioan. Ezer gutxi du bizitzan, baina inork gutxik duena du; oso argi dauka zer nahi duen eta edozer egin edo emateko prest dago lortzearren.

Atzera begira



1985. urte inguruko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Argazki hau Donostiako Maria Kristina hotelean aterata dago. Marca egunkari madrildarrak euskal kirolari ospetsueri omenaldia antolatu zuen, eta ekitaldi honetan ateratako argazkia da. Besteak beste, Jesus Loroño eta Atano III. omendu zituzten. Pilotari azkoitiarrarekin ateratako argazkia da hauxe, hain zuzen ere. Erretratu honetan jende ugari agertzen da, baina erdi-erdian Elgoibarko ordezkariak ikus daitezke: **Ramon Maiztegi (†), Atano III pilotaria (askoren ustez historiako pilotaririk onena) (†) eta Mikel Gorostiza**. Hauetaz gain, kazetari, argazkilari eta beste gonbidatu batzuk ere ageri zaizkigu argazkian. Omenaldiaren ostean, bazkaria egin zuten kirolari famatuz inguratuta. Esan digutenez, egun ederra pasatu zuten, eta oso gustura itzuli ziren etxera.



ESKERTZA

2005eko apirilaren 26an, 71 urte zituela hil zen *Antonni Longarte Oiartzabak*en sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ALBOKUAK INMOBILIARIA



Etxebizitza berriak ERROSARIO eta SAN BARTOLOME kaleetan!

ERDIALDEAN: 95 m². 5 Logela, egongela, sukaldea, bainua, aseoa eta ganbara. Berrikuntza behar du.

ERDIALDEAN: 116m². 3 Logela, egongela, sukaldea, trastelekua, bainua eta aseoa. Berogailu elektrikoa. Sartzeko moduan.

SAN ROKEN: 90 m². 3 Logela, egongela, sukaldea, bainua, aseoa, ganbara eta garajea. Berritua.

ERMUARANBIDEN: 2 Logela, egongela, sukaldea, bainua eta aseoa logela batean. Dena berritua.

**Errosario, 12
Tel.: 943 74 06 73**

Bigarren eskuko beste etxe batzuk ere baditugu.

150.000 m² lurra 14 urteko pinudiarekin saltzen dugu



2 eta 3 gelako 48 etxebizitza

117 garaje eta 76 trasteleku



Argibideak:
ANTT CONSULTORÍA
Antonio Arrillaga, 1 behea
20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 80 92 ■ Fax: 943 74 82 42

info@infolur.net - www.infolur.net

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai!



artair

Neinor 

NEINOR **Azkoitia**

Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA

 **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta
- 4 logelako duplexak behikalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.

